



elika

Fundación Vasca para la
Seguridad Agroalimentaria
Nekazaritzako Elikagaien
Segurtasunerako
Euskal Fundazioa



RASFF TXOSTENA

ELIKAGAIAK

ALERTAK - JAKINARAZPENAK

Jakinarazpenen kategorizazioa

Jakinarazpenen jatorria


Kutsadura iturrien sailkapena

Kutsatzaile nagusiak eta inplikaturako elikagaiak

2020ko HIRUGARREN LAUHILEKOA


JAKINARAPENEN KATEGORIZAZIOA

2020ko hirugarren lauhilekoan elikagaiei buruzko **1628** jakinarazpen izan dira. Horietatik 711 alertak izan dira (%43,5), 473 informazio-jakinaraizenak (%29) eta 444 mugan egin diren ukapenak (%27,5).



JAKINARAZPENEN JATORRIA

Kutsatutako produktuen jatorrizko herrialdeak hurrengoak izan dira:




Asiari dagokionez, kutsatzaileen % **50a Indiakoak** eta **Turkakoak**, % **28**. **Europari** dagokionez, jakinarazpen gehien sortu dituzten herrialdea **Polonia** izan da, % **16,5**arekin. **Afrikaren** kasuan, **Egiptok**, jakinarazpenen %**20** izan ditu. Azkenik, **Amerikaren** kasuan **EEBB** %**45,5**a eta **Brasil** %**32**arekin dira jakinarazpen gehien sortu dituztenak.

KUTSADURA ITURRIEN SAILKAPENA

2020ko 3. lauhilekoan zehar, Europako Informazio Azkarraren Sistemak (RASFF) **elikagaien 1628 alerta eta jakinarazpen** berri eman du. Jakinarazpen guztietatik, kutsadura iturrirei dagozkien zenbatekoak honako hauek dira:

Kutsadura iturria	%
Hondakinak	% 38,5
Kutsadura biologikoa	% 20,5
Iruzurrak	% 12,5
Mikotoxinak/biotoxinak	% 11
Kutsadura kimikoa	% 7,5
Metal astunak	% 3,5
Produktuaren egoera higieniko txarra	% 3
Kutsadura fisikoa	% 2,5
Bestelakoak	% 1



KUTSATZAILE NAGUSIAK ETA INPLIKATUTAKO ELIKAGAIK

Mikotoxinek eragindako kutsaduren artean, kasu gehienetan, % 81an, kutsadura **AFLATOXINEK** eragindakoa da eta, horrelakoetan **KAKAHUETEA** kutsaduren % 31a eragin du. Kasu gehienetan (% 24,5a) kakahuetea **EEBB**etatik zetorren.

Kutsadura biologikoei dagokienez, **SALMONELEK** kutsaduren %64a eragin ditu. *Salmonella sp* da talde honetako protagonista nagusia kasuen % 67,5an. **OILASKOA** izan da produktu protagonista %38,5eko kasuetan, % 61ko kasuetan **POLONIA** jatorria zelarrik. Beste salmonelei dagokienez, %25a *Salmonella enteritidis* dagokio (**OILASKOAK** eragin ditu kasuen % 72a eta % 77ko kasuetan **POLONIA** izan da jatorria) eta %7,5a *Salmonella typhimuriumi*, kasu honetan ere **OILASKOA** protagonista delarik (%50a) eta **frantziarrak** (%62,5).

Kutsadura biologikoarekin jarraituz, *Listeria monocytogenes* bakteriak jakinarazpenen %17,5a eragin ditu, **IZOKIN KETUA** %23,5an inplikaturata egonda, **POLONIARRA** % 50ean.

Hondakin fitosanitarioei eta medikamentuei dagokienez, **FITOSANITARIOEK** % 97,5 hartzen dute. Lauhileko honetan **ETILENO OXIDOAREN** maila oso altuak (% 69) detektatu dira **SESAMO HAZIETAN** (% 100) –gehienak **INDIA**tik ekarritakoak (% 76)– edo hazi horiek zituzten produktuetan: hamburgesentzako ogia, tahinia, atun-tatakia...

Maila horiek gainditu egiten dute legeriaren arabera haziek izan ditzaketen etileno oxidoaren hondakinen gehieneko muga (0,05 mg/kg). Hori dela eta, erregelamendu bat argitaratu da Indiatik datozen sesamo-haziei ezarritako inportazio-baldintza bereziak zehazteko.

Jasotako iruzurru guztien artean, **ETIKETAN ADIERAZI GABEKO ALERGENOEK** 41,5%ak (83 kasu), suposatu dute.

